

Antolatzaileak:



BIZIPOZA



Bizipozaren elkarteak eta komunikabideak elkarlanean jardunaldia

Maiatzaren 26an, Hernaniko Orona fundazioan

Babesleak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Politikako Departamentua



kutxabank



Orona

BIZIPOZA 32 elkartek osatzen dute. Eskubide bereziak dituzten edota laguntzaren bat behar duten haurrentzako elkarteak dira guztiak.

EGITARAUA

9:00. Materiala jaso.

9:15. **Sarrera**

***Leire Elizegi Beloki** (Bizipoza) eta ***Joxe Mari Auzmendi** (Hik Hasi).

9.30. **Zer jaso eta nola zabaldu.**

***Amagoia Mujika** (prentsa idatzia). ***Xabier Madariaga** (telebista).

10:15. **Nola egin ikusgarri?**

***Gotzon Barandiaran** (Idazlea). ***Estibalitz Esteibar** (Bertsozale Elkarte)

11:00. **Sare sozialetan lana, nola egin eraginkorra?**

***Arkaitz Sukuntza Alkorta**, TAPUNTU kooperatiba.

11:45. **ATSEDENA** (Prentsak elkarteekin hitz egiteko aukera izango du).

12:30. **MAHAI INGURUA: BIZIPOZAK zer egin lezake informazio-sarea egiteko?**

***Amagoia Mujika** dinamizatzailea

***Beatriz Sever** (Chrysallis) Bizipozaren kidea + **Estibalitz Esteibar, Gotzon Barandiaran** eta **Arkaitz Sukuntza**.

13:30. **AMAIERA.**

Jardunaldiaren AKTA

PRENTSA. Kazetaritza

AMAGOIA MUJIKA (prentsa idatzia)

Komunikazioan ez dakigu batzuetan zerk funtzionatuko duen eta zerk ez. Baina egia da, ezagutzen denak ez duela beldurrik ematen eta ezezagunak, berriz, bai. Horregatik, garrantzia du Bizipozako elkarte guztiak ezagutarazteak.

Oso anitzak dira Bizipoza osatzen duten elkarteak, batzuk oso txikiak, beste batzuk ez hain txikiak eta bakarren batzuk handiak. Eta, ezagutarazteko aukera ere oso desberdina da batzuen eta besteena.

Oro har, esan liteke, gaurko sistema ez dagoela aniztasuna errespetatzeko prestatua. Gure egitekoa da jendartearengana iristea eta ezagutaraztea. Nola egin hori?

-Nazioarteko egunak, egun egokiak izan litezke guk nahi duguna helarazteko. Beraz, aurretik komeni da ongi zehaztea zer adierazi nahi dugun, nola, zer terminoetan iritsi nahi dugun jendartearengana eta abar.

-Muturreko egoerak beti dira arriskutsuak. Patxadaz aurkeztu, informazioa eman, malko erraza bilatu gabe.

-Kazetarion artean ere hausnarketara eragin.

-Erredazioetan kontaktu zehatza izatea komeni da.

Nola iritsi prentsara?

-Prentsa oharra laburra izatea eta zehatza (orrialde erdia edo osoa) izatea, kokatuko duena, atentzioa deituko duena. Gero, kontaktuak jarri, informazio gehiago non lor litekeen eta abar jarritz.

-Ondoren, telefono dei bat egitea komeni da, ea informazioa jaso duten komentatzeko eta abar.

-Mezuak mundua guztiontzako izan behar duela. Haurren eskubideak babestu egin behar direla, horren defentsa egiteko gaudela eta egoera zailetik onera egiteko prestutasuna eta indarra dugula agerian geratu behar dira.

XABIER MADARIAGA (telebista)

Ur Handitan programa egiteko 15 kide gaude.

Gaia aukeratzeko, gure inguruan jasotako informazioaren bidez, irakurtzen dugunaren bidez eta izen propioen bidez egiten dugu.

Behin gaia erabakita, hemeroteka asko erabiltzen dugu, protagonistak giro onean eta erosoan aurkitzen ahalegintzen gara.

Aukeratutako gaiak zer bilatzen du? Heroiak, bizitzako heroiak. Indar miresgarria dutenak eta kamera aurrean jartzeko prest daudenak. Horiekin zabaltzen da informazioa eta historia humanoak agertzen ditugu, "politicamente correcto" dena ekidituz.

Zer behar da istorio on bat izateko? Interes humanoa, ikuspuntu berria ("Hori ez nekien" esateko modukoa). Gertukoa bada, hobe, eguneroko errealitatearekin lotzen delako, gizarte hobe bilatzen duena...

Baldintza horiek guztiak bete dituzten bi saio aipatzearen: *Transexualitatea*, eta, orain arte audientzia handiena jaso duen *Motxiladun umeak*.

KULTURA esparrua

GOTZON BARANDIARAN (Berri Txarrak musika taldearen promotorea)

Sinisten duzun hura komunikatu behar da. Nik ezin dut komunikatu gustatzen ez zaidana, zail egiten zait.

Komunikatzeko, garbi izan behar da zer kontatu nahi den, zer helburu dagoen komunikatzeko garaian, zer bizipen...

Kronograma bat egiten dugu. Diska publiko egin baino hilabete bat lehenago plan osoa prestatzen dugu. Eta, aurkezpenak, Euskal Herri osorako diseinatzen dira. Guretzat, egin duguna ezagutarazteko, kazetariak bidelagunak dira. Kazetariak ez daude gure zerbitzura, alderantziz baizik, beraien interesaren arabera antolatzen dugu.

Kazetariekin aurrez aurre egoten gara, eta informazioa egokitzen diogu bakoitzari, oso desberdina baita eskualdekoa edo EH osokoa izan; irratia izan, telebista ala prentsa idatzia.

Informatu nahi duenak arduraz eta erantzukizunez jokatu behar du. Eta, hornitzaile izatek kazetarien bidelagun izatera pasatu behar da.

ESTIBALITZ ESTEIBAR (Bertsozale Elkarteko komunikazio arduraduna)

Gure helburu nagusia, bertsolaritza etengabe berritzea da, biziberritzea.

Garrantzitsua da izateko helburua argi izatea.

Kazetariekin berdinetik berdinerako harremana izatea komeni da. Horretarako, datu basea zehazten joan behar da. Bakoitzean, kontaktu zuzena lortu.

Komunikazioa etengabe planifikatu behar da. Bai euskal hedabideentzat eta bai erdaldunentzat.

Pasioz egindako lana.

Bertsozale elkarte irabazi asmorik gabeko egitasmoa denez, erraztu egiten da harremana. Publizitate akordioak egiten ditugu prentsarekin, trukeko iragarkiak. 70 langilek eta 100 bolondresen inguru osatzen dute elkarteak.

Sei elkarteetan banatuta osatzen da elkarteak (Araba, B, G, I, N eta orokorra).

Lan banaketa handia du:

-Txapelketa

-Mintzola ikerketa, sakonketa, unibertsitatea. Xenpelar zentroa.

-Nazioartea.

-Bertsolarientzako plazak sortu, kontratuak egin eta abar, Lanku elkarteak egiten du.

-Internet atariak: Bertsozale elkartearena, txapelketaren ataria, bertsoa.eus saioak zintzilikatzeko.

-Hitzetik hortzera telebista saioak.

...

Hezkuntza formala edo arautua: 47 irakasle, 500 ikastetxe eta 26.000 ikasleengana iristen da urtero, nerabeak eta gazteak zaletzeko.

Hezkuntza ez formala: bertso eskolak.

Hezkuntza informala: aisialdia, udalekuak eta abar.

SARE SOZIALAK

ARKAITZ SUKUNTZA (TAPUNTU kooperatiba)

Lehenengo galdera hau izan beharko luke: Zein da gure publikoa?

- Espero duena eskaini.
- Ezagutza partekatu.
- Informatu.
- Entretenu.
- Irudia erabili: Zergatik?

Edukiaren garrantzia:

- Emozionatu... Konektatu egin behar da.
- Irudien iraultza.
- Estekatu gure WEB gunera.
- Eduki propioa izatea.

Egutegi bat egin, eta bete!

- Asteko plangintza, hilekoa. Erreal, egiteko faktible izan dadila.
- Maiztasuna jarri.
- Edukiak planifikatu.
- Plangintza bete.

Publikoari erantzun:

- Beti erantzun.
- Bizipozez.
- Bideratuz. Guk ezin badugu, non edo nori erantzun diezaiogun.
- Publiko nahiz pribatu.

Interakzioa:

- Eman eta jaso.
- Sarea egin, eman, jaso eta saretu.

MAHAI INGURUA

BEATRIZ SEVER (Bizipozako Chrysallis elkartekoa)

Hasieran, 8 familia elkartu ziren. Hiru urte eta erdi geroago, 70 familia daude.

Lan banaketa egin dute, ardurak hartuta:

- Hitzaldiak.
- E-mailak erantzun edo bideratu.
- Ekonomia eraman.
- Prentsa (Nafarroa eta EAE banatuta dute).

Pedagogia egitea oso garrantzitsua dela ikusten dute. Whasappa erabiltzen dute kartelak eta abar zabaltzeko soilik. WEBa ez da dinamikoa, informatzeko erabiltzen baita. Sare sozialak erabiltzen dituzte informazioa zabaltzeko, filma, dokumentala, abestiak, beti ere neurtuta mezua ongi bideratua izan dadin.

Nola eraiki komunikazioa:

- Pena eman ez ala elkartasuna adieraziz eta bilatuz baizik?
- Aukera berdintasuna aldarrikatuz. Jendarteak zer egin behar duen haurren eskubiak babesteko ohartzea.
- Umoretik jotzea egoki izan liteke.
- Komunikatzeko historia egon behar dela eta aurpegi bat edo gehiago egon behar dela deritzo.
- Edonork berari gerta dakiokela sentitzeak asko gerturaten du, enpatia sortzen du.

EZTABAIDA

Eztabaidan kontu asko agertu bada ere, sentsibilizazio eta informazio prozesuan zailtza nagusia haxe izan da: ea istorio bat edo historia eta aurpegi bat beharrezkoa den jendearengana iristeko ala nahikoa den elkartearen mezua zabaltzea eta edukian indarra jartzea, aurpegiak eta istorioak eta historia pertsonalak erabili gabe.